



I. ERANSKINA

Euskaratzeko Eskuliburuak Proposatzekeo deialdiaren

OINARRIAK

UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022) dokumentuan (4.3. III. Ardatza: Corpus linguistikoaren plangintza atala) jasota dagoenaren arabera, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren eginkizun eta helburuetako bat da «irakas-materialen eta ikasliburuen sorkuntza zein itzulpenetarako plangintzak egin eta deialdiak burutzea» (ikus 4.3.1.1. azpiatala).

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak, plan horretan, euskarazko liburugintzan ordura arte egindako bideari segitzeko asmoa adierazten du, betiere eskura dituen giza baliabide eta baliabide materialen arabera.

I. eranskin honetan, 2023ko Deialdiaren oinarriak argitaratzen dira, non biltzen baitira deialdiaren xedea, proposamenak egiteko modua, epeak, hautaketarako erabiliko diren irizpideak eta Deialdiaren inguruko bestelako jakingarriak.

1. Deialdiaren xedea

UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022) dokumentuan testugintzaren eta liburuen itzulpengintzaren arloan jasotzen direnak betetzea da deialdi honen xedea. Deialdi honen bidez, 2023-2026 bitartean itzuliko diren liburuen zerrenda osatu nahi da.

2. Proposamenak nola eta noiz aurkeztu

Proposamenak egin nahi dituzten unibertsitateko sail eta ikastegiekin liburu bakoitzeko eskaera bat bete beharko dute.

Deialdi honetan argitaratzen den formularioaren bidez egingo dira eskariak; formularioan eskatuko dira eskatzaile bakoitzak bete beharreko datuak: izen-deiturak, irakasle arduraduna, saila, zentroa, II. eranskin formalizatua eta abar.

3. Proposatutako eskuliburuak bete behar dituzten irizpideak, eta eskabideak balioesteko prozedura

Proposatutako eskuliburuak hautatzeko orduan, irizpide hauek izango ditu kontuan Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak:



- **Enborrezko edo nahitaezko irakasgai batean erabiltzeko (edo baterako baino gehiagotarako) eskuliburua izango da.**
- **Liburuak balizko erabiltzaile kopuru handia izan beharko du (lehenasuna emango zaie titulazio baterako baino gehiagotarako edo ikastegi baterako baino gehiagotarako baliagarriak direnei).**
- **Liburuak "klasikoa" izan beharko du, eta azaltzen duen gaiak gutxienez 5 urtez garrantzia izango duela aurreikusi beharko da (adibidez, adierazgarria da liburu originala eta segidako hainbat argitalpen dituen izatea).**
- **Jatorrizko liburuak ez ditu 350 orrialde baino gehiago izango (betiere 23 x 17 cm-ko formatu estandarrean).**

4. Proposamenak egiten dituztenen konpromisoak

Proposamenak egiten dituztenek Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzari eta Euskara Zerbitzuari laguntza eskainiko diete liburuen itzulpena eta argitalpena bideratzeko: jatorrizko liburua eskuratzen, itzulpenaren begiraletza teknikoa bideratzen, liburu itzuliaren berri ikasleen artean zabaltzen eta abar.

Behin liburua argitaratu ondoren, liburuaren banaketaren jarraipena egingo du. Horretarako, batez ere kontuan izango da ea liburu hori agertzen den titulazioen gidetako bibliografietan. Aipatzen ez bada, irakasgaiaren edo irakasgaien arduraduanekin harremanetan jarriko da, horren zergatia jakiteko.

5. Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren konpromisoak

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak konpromisoa hartzen du itzuli beharreko liburuen kasuetan honako hauek betetzeko:

- a) Argitalpen Zerbitzuaren lankidetzarekin, eta ditugun baliabideen arabera, 2023-2026 urte bitarte honetan itzuliko diren liburuen zerrenda osatuko du, betiere oinarri hauen hirugarren atalean ezartzen diren irizpideen arabera.
- b) Liburua itzultzeko egile-eskubideak kontratatuko ditu, Argitalpen Zerbitzuaren bitartez.
- c) Liburua itzultzeko baliabide materialak eta giza baliabideak bilatuko ditu (itzultzaileak, begirale teknikoak eta hizkuntza-begiraleak).
- d) Liburua argitaratzeko ekimen guztiez arduratuko da, Argitalpen Zerbitzuaren eta Euskara Zerbitzuaren bitartekotzarekin.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E INTERNACIONALIZACIÓN

6. Eskaerak bidaltzeko modua eta epea

Eskaerak deialdiarekin batera argitaratuko den formularioaren bidez egingo dira, eta haiek egiteko epea deialdiaren argitalpenaren egunetik **maiatzaren 10a** artekoa izango da.

Handik aurrera, gehienez bi hilabeteko epean iragarriko du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak itzuliko diren liburuen zerrenda, lehenetsuen arabera antolatua.